

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAGIKETAK ZULAGAILU BIRAKARI PNEUMATIKOekin EDO ELEKTROHIDRAULIKOekin	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0773		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko lurpeko indusketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Lurpeko zulaketa	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Eragiketak eskuzko zulaketa-ekipamenduarekin.		30
	Jumbo bidezko zulaketa.		90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0417_2 LURPEKO ZULAKETA EGITEA gaitasun-ataleko LB6 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zulagailu birakari pneumatikoekin edo elektrohidraulikoekin lan egitea, zulaketa-eskemaren eta ekipamenduaren funtzionamendurako eskuliburuaren arabera.

E1.1 Zulaketa-ekipamenduaren elementuak eta horien funtzioa identifikatzea, ekipamendu zulatzailearen muntaia eta funtzionamendua azalduz, ekipamenduaren dokumentazio teknikoaren arabera.

E1.2 Ekipamenduaren kokapenak eta orientazioak, ekipamenduaren funtzionalitatearen arabera, izan behar dituen ezaugarriak ezartzea.

E1.3 Ur-sareen eta energiaren eta instalazioaren konexioen erabilgarritasuna ezagutzea.

E1.4 Zulaketa-ahok eta hagaxka-multzoa bereiztea, ezaugarriak kontuan hartuta eta lur-motaren arabera egokienak hautatzeko.

E1.5 Ekipamendu elektrikoaren isolamendu elektrikoaren kontrolaren irakurketari eta egiaztapenari buruzko arauak aipatzea.

E1.6 Zulagailu birakariaren lan egiteko prozedura deskribatzea, fabrikatzailearen funtzionamendurako eskuliburuaren arabera.

E1.7 Ekipamenduaren lehen mailako mantentze-eragiketak eta konexio elementuak deskribatzea zulaketa gauzatu bitartean funtzionamendu egokia bermatzeko eta matxurak saihesteko.

E1.8 Zulagailu birakariaren bidez gauzatuak zulaketaren arrisku espezifikoaren prebentzio-neurriak zerrendatzea: atmosfera, inpaktuak edo zulaketa-ekipamenduaren desplazamenduaren eta hagaxka-multzoaren manipulazioaren ondorioz harrapatuta geratzea.

E1.9 Egoera espezifiko batean:

- Zulaketa-ekipamendua kokatzea eta orientatzea, barrena-zuloak sarreran jartzeko zulaketa-eskemaren arabera.
- Zulaketa-aho eta hagaxka-multzo egokiak hautatzea lur-motaren eta laneko argibideen arabera.
- Hagaxka-multzoa muntatzeko eta lerraduran akoplamendu egokiekin jartzeko eragiketak egitea, ekipamendu zulatzailearen funtzionamendurako arauen arabera.
- Mahuken eta ur- eta energia-sareekiko konexioak eta ekipamendu zulatzailearekiko konexioak egitea, baita kasuan kasu beharrezkoak diren konponketak ere.
- Zulaketa egitea, bultzada erregulatuz buxadurarik ez izateko, zulaketa-abiadura ezin hobea izateko eta barrena-zuloetan narriadurarik ez izateko.
- Lehen mailako mantentze-eragiketak egitea.
- Zulagailu birakari bidezko zulaketarako ezarritako prebentzio-neurriak aplikatzea.
- Zulaketa-jardueretarako norbera babesteko egokiak diren ekipamenduak erabiltzea.

Edukiak:

1. Zulagailu birakari pneumatikoen edo elektrohidraulikoen osagaiak, elementuak eta arriskuak.

- Zulagailu birakari pneumatikoen edo elektrohidraulikoen organo mekanikoak, elektrikoak, oleohidraulikoak eta pneumatikoak.
- Ekipamenduaren elementuak eta muntaia.
- Ekipamenduaren funtzionamendurako eskuliburua eta prozedura operatiboa.
- Ginbalet-motak, hagaxka-multzo motak eta zulaketa-aho motak.
- Aire- eta ur-mahukak: mahuken loturak, akoplamenduak, eta mahukak konpontzeko prozedurak.

- Isolamendu-kontrola. Isolamendua, korrante elektrikoaren deribazioak eta elektrokuazioa. Isolamendu elektrikoaren kontrolari buruzko araudia: onar daitezkeen mugak eta aldizkako azterketak.
- Zulagailu birakariaren bidezko zulaketaren lanpostuak dituen arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-neurriak.

2. Eragiketa-prozedura zulagailu birakari pneumatikoekin edo elektrohidraulikoekin.

- Zulaketa birakari pneumatikoko edo elektrohidraulikoko ekipamendua kokatzea eta orientatzea, barrena-zuloak sarreran jartzeko zulaketa-eskemaren arabera.
- Zulaketa-ahoak eta hagaxka-multzoa: egokitapena lur-motaren eta laneko argibideen arabera.
- Hagaxka-multzoa muntatzeko eta lerraduran akoplamendu egokiekin jartzeko eragiketak, ekipamendu zulatzailearen funtzionamendurako arauen arabera.
- Zulagailu birakari pneumatiko edo elektrohidrauliko bidezko bultzada erregulatzea, buxadurarik ez izateko, zulaketa-abiadura ezin hobe izateko eta barrena-zuloetan narriadurarik ez izateko.
- Lehen mailako mantentze-lanak egitea fabrikatzailearen eskuliburuaren arabera. Koipeztatzearen oinarriko printzipioak. Egin beharreko eragiketak.
- Zulagailu birakari bidezko zulaketarako ezarritako prebentzio-neurriak aplikatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaindituak izan behar ditu UF0770 Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa eta UF0771 Eragiketak eskuzko zulaketa-ekipamenduarekin

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko lurpeko indusketak